Zaratamoko Udala
Bizkaia

ZERBITZUAK EMATEKO BALDINTZA TEKNIKO BEREZIEN AGIRIA
ESKOLA-LAGUNTZA ZERBITZUA 2023-2024 KURTSORAKO

1.- Kontratuaren xedea

Zaratamo HLHIko Zuzendaritzak eta Zaratamoko Udaleko Hezkuntza, Kultura eta Kirol Arloak beharrezkotzat jotzen dute eskola-laguntzako zerbitzu bat abian jartzea, hala behar duten ikasleentzat.

2.- Helburua

Ikasteko eta garatzeko zailtasun handiago duten ikasleen trebetasunak indartzea, gure ikastetxe publikoko Zaratamo HLHIkoak, eskola-porrota, ahal den neurrian, murrizteko eta haien gizarteratzea errazteko.

3.- Berariaz honako zerbitzu hauek emango dira:

2023-2024 ikasturterako ziklo bakoitzeko ikasle-kopurua honako hau izatea aurreikusten da:
• LH1 eta 2:2 haur
• LH3 eta 4:4 haur
• LH5 eta 6:7 haur
Talde bakoitzak ikastetxean bertan jasoko du eskola-laguntza, astean behin, 16: 30etik 18: 00etara.